

20. atala GORULARI DANTZAK

Iurretako dantzei buruzkoak errebasatzen ari ziren Aritz eta Jone neba-arreba iurretarrak. Bazegoen, egia esan, kontu haiei buruz zer ikasi.

- Dantzari-dantza aipatzen da baina Iurretan dantza gehiago ere egiten dira, ez da ala Jone?
- Gorulari dantzak eta erregelak ezin dira ahaztu Aritz! – azaldu zuen Jonek. – lehen ohitura zegoen jai egunetan dantza hauek egiteko, baina XIX. mendean galtzen joan ziren.
- Zergatik galdu ziren baina?
- Beno, iritzi ezberdinak daude horren inguruan. Diotenez gizonezkoen dantzak lehenetsi zirela eta emakumeek dantza egitea ez zela oso begi onez ikusten. Dena dela, Antoinde D'Abadie-k 1853an Urruñan sustatuako Euskal Jaiek, jarraipena izan zuten eta 1886. urtean Durangon antolatu ziren. Urte hartan Iurretako dantzariak hiru dantza dantzatu zituzten: Arku-Dantza, Zinta-Dantza eta Gorularia edo gaur egun dantza taldean deitzen diogun moduan, "Estanpie".
- Horietan beraz, neska eta mutilek hartzen zuten parte ezta?
- Bai. Garai hartan, neskek "Ilandera" soineko gorriak janzten zituzten eta mutilak zuriz janzten ziren.
- Ados – Hasi zen ulertzen mutila – Eta zer diozu erregelei buruz?
- Erregelak ere badakigu aspaldi egin izan direla gurean. 1748. urtean jaiotako Antonio Añibarro frantziskotarrak ere aipatzen zuten bere sermoietan Dantzari-dantzaren

ostean plazara ateratzen zirela dantzariak eskutik helduta. Lehenengoak "Aureskua" egiten zuten eta azkenak, gero, "Atzeskua".

- Hori mutilek ala neskek egiten zuten Jone?
- Mutilek egingo zuten gehienetan baina neskek ere egiten zuten, ez pentsa! 1837. Urtean Edwar Bell Stephens kazetariak "Morning Post" egunkarian kontatu zuten nola ikusi zuten Iurretan neska ilara bat dantzan herritarrak begira-begira zituztela.
- Zeinen ederra izango zen hori ikustea!
- Bai! – Bukatu zuten neskek – gaur egun sarritan egiten dugu dantzariok, neska nahiz mutil, gona zein praka, Erregela dantza plazan!

ARIKETA:

- Zeintzuk dira Gorulari dantzak?

